


Gailu teknologikoak

Noa, Inhar, Nikolas eta Oihane

ONDORIO NAGUSIAK



1

Gizartean, mugikorra eta ordenagailuak dira gehien erabiltzen diren gailu teknologikoak.

2

modu positiboan edo negatiboan erabili daiteke gailu teknologikoak:

+informatzeko eta informazioa bilatzeko.

+entretenezko

-Engantxatuta gaude eta denbora galtzen dugu.
-Eragin fisiko eta psikiko okerrak: bistan, logurean, isolamendua...

3

Etxean bideojokoetan jolasten geratzea desegokia da lagunekin dugun harremana galdu edo baldintzatzen duelako eta denboraren kontrola galtzen dugulako.

4

Astean zehar egunean gutxi gora behera 4 ordu erabiltzen ditugu gailu teknologikoak eta asteburuetan 6 ordu egunean.

5

Arreta etengabe mugikorrean eta bideojokoetan jarrita familiakoekin zein lagunekin harreman gutxiago izatea dakar, edo harreman horiek baldintzatzea.

6

Gailu teknologikoek denbora kentzen digute eguneroko ekintzak egiteko eta ohiko ekintzak baldintzatzen dituzte; adibidez, ikasten ari garenean soinua egiten dute eta distraitu egiten gara; baina zaildu egiten dute komunikazio zuzena edo lagun arteko elkarrizketa arrunt bat.

7

Jendeak normalean mugikorra erabiltzen du lo egin aurretik, baina hori osasunarentzat eta loaren kalitatearentzat oso kaltegarria da.

8

Otorduetan, telebista da gehien erabiltzen den gailu elektronikoa eta ikasleek zein gurasoek erabiltzen dute.

9

Etxean gailu teknologikoekin normalean arauak jartzen ditugu, adibidez: otorduetan gailurik ez erabiltzea, gauean mugikorrak itzaltzea, etab.

10

Teknologiaren erabilerarekin ohikoa izaten ari da gurasoek betetzen ez dituzten joerak seme-alabei eskatzea, eta horrek interferentzia handia eragiten du teknologiaren erabilera egokia edo praktika onen inguruan agindu asko jasotzen ditugun bitartean, kontrako ereduez inguratuta bizi garelako.